



**Andoaingo
Udala**

1/88 UDAL ORDENANTZA, Andoaingo Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituena.

ORDENANZA MUNICIPAL 1/88, sobre normas para la normalización del uso del euskara en el Ayuntamiento y Municipio de Andoain.

Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren arabera, euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza dena, Euskadiko hizkuntza ofiziala da, gaztelania bezala, eta hiritar guztiek dute euskara ezagutu nahiz erabiltzeko eskubidea, Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunei dagokielerik bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu eta arautzea, hala nola beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurri eta bitartekoak erabaki eta erregulatzea.

Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legea aipatu Autonomi Estatutuko 6. artikuluan xedatutakoa garatzera dator, euskararen erabilera arautzen baitu. Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuak, berriz, aipatu Legearen harian, Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Administrazio Publikoetan euskararen erabilera eta normalizazioa arautzen ditu.

Administrazio bakoitzari aipatu arau eta xedapen orokorrak bakoitzak bere iharduketa-eremuan aplikatzea, eta aplikazio horretarako arauak eman eta bitartekoak baliaraztea. Horixe da, hain zuzen ere, Ordenantza honen xedea, hots, indarrean dauden xedapen orokorrak Andoaingo Udalaren iharduketa-eremuan hezurmamitu eta aplikatu daitezkeen arauak eman eta betearaztea.

Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza eta gaztelania bezala ofiziala izateaz gain, Euskal Herri osoaren ondare da. Hori horrela, hiritar guztien elementu integratzaile izan behar du, eta Andoaingo auzotar guztientzat hala izan dadin saiaturiko da Udala. Beste hitzetan esanda, euskara Andoaingo Udalean eta udalerrian normaltasunez erabiliko den egiazko komunikabide izan dadin nahi du Udalak, eta horretarako neurri egokiak hartuko ditu.

Indarreango araudiaren eta, halaber, euskararen erabilpena araukatzeko oinarrizko legeari buruz Auzitegi Konstituzionalak emandako ekainaren 26ko 82/1986 epaiaren arabera, hiritarrek hizkuntza ofizialak erabiltzeko duten eskubidea bermatzea eta aipatu hizkuntzen ezagutza eta erabilera babestu eta sustatzea dagokie botere publikoei. Andoaingo Udalak beregain hartzen du erantzukizun hori. Hortaz, Udalaren barne-funtzionamenduan nahiz Udalaren eta herritarren arteko harremanetan, hala

Con arreglo a lo establecido en el Estatuto de Autonomía del País Vasco, el euskara, lengua propia del País Vasco, es lengua oficial de Euskadi, al igual que el castellano, y todos los ciudadanos tienen derecho tanto a conocerlo como a usarlo, correspondiendo a las Instituciones comunes de la Comunidad Autónoma garantizar y regular el uso de ambas lenguas oficiales, así como disponer y regular las medidas necesarias para asegurar el conocimiento de las mismas.

La Ley Básica 10/1982, de 24 de noviembre, desarrolla lo dispuesto en el artículo 6 del citado Estatuto de Autonomía, ya que regula el uso del euskara. Por otra parte, el Decreto 250/1986, de 25 de noviembre, al hilo de la mencionada Ley, regula el uso y normalización del euskara en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Corresponde a cada una de las Administraciones aplicar, en sus correspondientes ámbitos de actuación, dichas normas y disposiciones generales, así como dictar las normas y disponer los medios necesarios a tales efectos. Ese es, precisamente, el objetivo de esta Ordenanza, es decir, dictar y velar por el cumplimiento de las normas necesarias para la aplicación y desarrollo en el ámbito de actuación del Ayuntamiento de Andoain de las disposiciones generales en vigor.

El euskera, lengua propia del País Vasco, y oficial como el castellano, es, asimismo, patrimonio de todo el Pueblo Vasco. Debe ser, por lo tanto, elemento integrador de todos los ciudadanos del mismo, y el Ayuntamiento de Andoain se esforzará en que así sea para todos sus vecinos. En otras palabras, el Ayuntamiento desea que el euskera sea un medio de comunicación real y de uso normal en el municipio y en el Ayuntamiento de Andoain, y para ello adoptará las medidas oportunas.

A tenor de la normativa vigente y, de igual manera, con arreglo a la Sentencia 82/1986, de 26 de junio, dictada por el Tribunal Constitucional respecto a la Ley Básica de uso y normalización del euskera, corresponde a los poderes públicos garantizar el derecho que tienen los ciudadanos a hacer uso de las lenguas oficiales, así como la protección y promoción del conocimiento y uso de dichas lenguas. El Ayuntamiento de Andoain se hace cargo de dicha responsabilidad. Por lo tanto, en la presente Ordenanza se define el ámbito normativo para



Andoaino Udala

nola udalerriko bizitza sozialean euskararen erabilpena normalizatzeko Udalak burutuko duen jardunerako arau-esparrua definitzen da Ordenantza honen eskutik

la actuación que desarrollará el Ayto en aras a normalizar el uso del euskera en el funcionamiento interno de la administración municipal y en las relaciones de ésta con los ciudadanos, así como en la vida social del municipio.

LEHEN KAPITULUA Xedapen Orokorrak

CAPITULO PRIMERO Disposiciones Generales

1. Artikulua.

Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza dena, Andoaino Udaleko eta udalerriko hizkuntza ofiziala da, gaztelania bezala.

Artículo 1.

El euskera, lengua propia del País Vasco, es, como el castellano, lengua oficial del Ayuntamiento y del municipio de Andoain.

2. Artikulua.

Aplikazio orokorra izan dezaten eman diren eta indarrean dauden legez nahiz arauen eta Ordenantza honetako xedapenen arabera erabiliko du euskara Andoaino Udalak, nahiz bere barne-funtzionamenduan nahiz herritarrekiko hala organismo eta erakunde guztiekiko harremanetan, azken helburua euskararen erabileraren normalizazioa delarik.

Artículo 2.

El Ayuntamiento de Andoain hará uso del euskera, tanto en el ámbito de funcionamiento interno como en el de las relaciones con los ciudadanos y el conjunto de organismos e instituciones, con arreglo a las leyes y normas vigentes dictadas con carácter general y a las disposiciones recogidas en la presente Ordenanza, siendo objetivo último la normalización del uso del euskera.

3. Artikulua.

Euskara eta gaztelania ofizialak badira ere, hainbat eta hainbat urtetan euskarak jasan duen zokoratzeko prozesuaren ondorioz, berdintasun sozialetik urrun daude. Hortaz, eta bi hizkuntza ofizialen berdintasun soziala lortzeko xedez, lehenetsunezko tratamendu berezitua emango dio Andoaino Udalak euskarari.

Artículo 3.

El euskera y el castellano, aun siendo, ambas, lenguas oficiales, están lejos de encontrarse en un plano de igualdad social. Por lo tanto, y con el objetivo de lograr la igualdad social de las dos lenguas oficiales, el Ayuntamiento de Andoain dará un tratamiento diferenciado y preferente al euskera.

4. Artikulua.

Euskal Herriko hiritar guztiek dute bi hizkuntza ofizialak ezagutu ezezik erabiltzeko eskubidea, nola hitzez hala idatziz. Ondorioz, Andoaino Udalak, indarreango legeriak orohar onartutakoen ildotik honako hizkuntza eskubideak aitortzen dizkie espresuki herritarrei:

Artículo 4.

Todos los ciudadanos del País Vasco tienen derecho tanto a conocer como a hacer uso oral y escrito de ambas lenguas oficiales. En consecuencia, el Ayuntamiento de Andoain, con el mismo tenor de los recogidos en general por la legislación en vigor, reconoce expresamente a los ciudadanos los siguientes derechos lingüísticos:

- Udalarekin eta bere menpeko Organismo ororekin ahozko eta/edo idatzizko harremana euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.
- Udalak antolatu edo/eta gestionaturiko ikasketak oro bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.
- Udalaren argitalpenak eta Udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein

- Derecho a mantener relaciones orales y/o escritas con el Ayuntamiento y con cualquier organismo dependiente del mismo en euskera o castellano.
- Derecho a realizar cualquier tipo de enseñanza organizada y/o gestionada por el Ayuntamiento en las dos lenguas oficiales.
- Derecho a recibir en euskera las publicaciones del Ayuntamiento y todo tipo de notificación o disposición de la que dé cuenta el Ayuntamiento



Andoaingo Udala

komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapenak oro euskaraz hartzeko eskubidea.

- d) Udaleko edozein bileratan euskaraz jarduteko eskubidea.

mediante prensa diaria, periódica, radio o cualquier otro medio de comunicación.

- d) Derecho a intervenir en euskera en cualquier reunión celebrada en el Ayuntamiento.

BIGARREN KAPITULUA

Euskararen erabilera Udalaren barne funtzionamenduan

CAPITULO SEGUNDO:

Uso del euskera en el funcionamiento interno del Ayuntamiento.

5. Artikulua.

Hiritarrek Udalarekin beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean jardun dezaketenez eta kontutan hartuz gaztelania hiritar guztiek ezagutzen dutela, Udalarekin harremana euskara hutsean eduki nahi duten hiritarren zentsua egingo du Udalak. Zentsu horretan sar daitezten izena ematen dutenei euskara hutsean zuzenduko zaie Andoaingo Udala.

Artículo 5.

Como quiera que los ciudadanos pueden relacionarse con el Ayuntamiento en la lengua oficial que a ese efecto elijan y teniendo en cuenta que todos los ciudadanos tienen conocimiento del idioma castellano, el Ayuntamiento realizará el censo de los ciudadanos que deseen mantener sus relaciones con el Ayuntamiento exclusivamente en euskera. A aquellas personas que realicen su inscripción en el mencionado censo, el Ayuntamiento se les dirigirá exclusivamente en euskera.

6. Artikulua.

4. eta 5. artikuluetan aitortutako eskubideak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezten beharrezko diren neurriak hartuko ditu Udalak. Hortaz, hiritarren zerbitzurako hizkuntza ezezik laneko hizkuntza ere izango da euskara Andoaingo Udalean, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera

Artículo 6.

El Ayuntamiento adoptará las medidas necesarias a fin de que los derechos reconocidos en los artículos 4.º y 5.º sean reales y efectivos. Por lo tanto, el euskera será no solo lengua para dar servicio a los ciudadanos sino también lengua de trabajo en el Ayuntamiento de Andoain, con arreglo a lo dispuesto en la presente Ordenanza.

7. Artikulua.

Aurreko artikuluetan jasotakoa betetzeko xedez, udal enplegatuek euskalduntzeko neurri egokiak hartuko ditu Andoaingo Udalak. Era berean, etorkizunean kontratatzen dituen enplegatuek beren jarduna euskaraz nahiz gaztelaniaz burutzeko gai izan beharko dute. Guzti horretarako, Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuaren ildotik, Udaleko eta Udalaren menpeko organismoetako lanpostu guztien hizkuntza eskakizunak definitu eta onartu ditu, lanpostuetan jardun ahal izateko ezinbesteko baldintza gisa lanpostuen zerrendetan jasoko direnak.

Artículo 7.

Con el fin de cumplir con lo dispuesto en los artículos anteriores, el Ayuntamiento adoptará las medidas oportunas para proceder a la euskaldunización de los empleados. De igual forma, los empleados que se contraten en el futuro deberán estar debidamente capacitados para desarrollar sus funciones tanto en euskera como en castellano. Para todo ello, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 250/1986, de 25 de noviembre, se definirán y aprobarán los perfiles lingüísticos de todos los puestos de trabajo del Ayuntamiento y de los organismos dependientes del mismo, que serán recogidos en la relación de puestos de trabajo como requisito imprescindible para desarrollar las funciones inherentes a los mismos.

Hizkuntza eskakizunak lanpostu bakoitzaren funtzio eta zereginen arabera definituko dira, hots, plaza bakoitzaren izaeran (Udal barruko nahiz kanpoko harreman-sarea, menpeko pertsonala,

Los perfiles lingüísticos serán definidos en función de las tareas y quehaceres asignados a cada puesto de trabajo, es decir, las destrezas lingüísticas, bien sean orales como escritas, se establecerán en base a la



Andoaino Udala

zerbitzuaren izaera, lanpostuaren maila profesionala, eginkizun zehatzak) oinarrituz erabakiko dira lanpostuen ahozko nahiz idatzizko hizkuntza trebetasunak.

Arazoaren 25eko 250/1986 Dekretuko 3.3. artikulua arabera, Hizkuntza Politikarako Idazkaritzari dagokio aipatu hizkuntza eskakizunak definitzea. Hortaz, hizkuntza eskakizunak, behin aipatu Idazkaritzak definitu ondoren, Andoaino Udaltzaren onartu eta Ordenantza honi eranskin gisa gehituko zaizkio.

8. Artikulua.

Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuak 12. artikuluan xedaturiko bost helburu mailakatueteriko laugarrena hartzen du beretzat Andoaino Udalak. Beraz, gizarte-izaera eta izaera orokorra duten Zerbitzu eta Unitate Administrazio guztiek oso-osorik elebrietan burutuko dute beren jarduna. Gainontzeko Zerbitzuetan, hau da, kalegarbitzaileen eta obretako lantaldearen zerbitzuetan zirkuito elebidunak bermatuko dira, kasu batean nahiz bestean arduradunak elebidun izan beharko dutelarik.

9. Artikulua.

Aipatu dekretuko laugarren helburua bost urtean lor dadin plangintza egokia prestatu eta hezuramaituko du Andoaino Udalak, plangintza horretan zehaztuko direlarik enplegatu guztiak eta bakoitza dagokien hizkuntza eskakizunera egokitzeko prozesuan bete beharko diren epeak, Udaltzaren jarriko dituen bitartekoak, lehentasunak eta beste.

Bitartekoak era askotarikoak izango dira: denbora oso edo partzialeko ikastaroak, ikasturte bat edota gehiagoko ikastaroak hala nola ikastaro trinkoak, barnetegiak, lanordutan edo lanorduz kanpo burutu beharrekoak, langiroko prestakuntza, e.a. Euskara Zerbitzuak kontrolatu eta ebaluatuko ditu ikastaroen emaitzak. Enplegatu bakoitzarentzat egoki den bitartekoa enplegatuarekin adostasunean aplikatuko da.

Edozein kasutan, ondoko ordena honi jarraiki ezarriko dira euskalduntze prozesu horretako lehentasunak:

- Udaltzaren Zerbitzuei dagokienez: Kultura, Hezkuntza (Musika Eskola, Lanbide Hastapenerako Eskola, Haurtzaindegia),

naturaleza misma de cada puesto (red de relaciones externas e internas, personal subordinado, carácter del servicio, nivel profesional del puesto, funciones específicas).

Según el artículo 3.3. del Decreto 250/1986, de 25 de noviembre, corresponde a la Secretaría de Política Lingüística definir los mencionados perfiles. Por lo tanto, una vez hayan sido definidos los perfiles lingüísticos por dicha Secretaría, serán aprobados por la Corporación Municipal de Andoain y recogidos como anexo de la presente Ordenanza.

Artículo 8.

El Ayuntamiento de Andoain opta por el cuarto objetivo de los cinco graduales dispuestos en el artículo 12 del Decreto 250/1989, de 25 de noviembre. Por lo tanto, todos los Servicios y Unidades Administrativas de carácter social y los de carácter general funcionarán totalmente de un modo bilingüe. En el resto de los servicios, es decir, en los servicios de limpieza viaria y brigada de obras, se garantizarán circuitos bilingües, siendo los responsables de los mismos, tanto en un caso como en otro, bilingües.

Artículo 9.

El Ayuntamiento de Andoain determinará y desarrollará la planificación conveniente para que sea efectiva la consecución en un plazo de cinco años del cuarto objetivo referido en el citado Decreto. En dicha planificación se determinarán los plazos a cumplir, medios que habilitará el Ayuntamiento, prioridades y demás circunstancias relativas al proceso de adaptación de todos y cada uno de los empleados a su perfil correspondiente.

Los medios que habilitará el Ayuntamiento serán de distinto carácter: cursos a tiempo parcial o completo, cursos de uno o más años lectivos, así como cursos intensivos, internados, formación en el propio puesto de trabajo, etc. El Servicio de Euskera controlará y evaluará los resultados de los mencionados cursos. El medio que se estime idóneo para cada empleado se aplicará con la conformidad de éste.

En cualquier caso, las prioridades para dicho proceso de euskaldunización se establecerán con arreglo al siguiente orden

- En lo referente a Servicios municipales: Cultura, Educación (Escuela de Música, Taller Ocupacional, Guardería), Bienestar Social y



Andoingo Udala

Gizarte-Ongizatea eta Zerbitzuak (Asistentzia Soziala, Kontsumitzaile Bulegoa, Atezainak, ...) Hirigintza, Udaltzaingoa, Barne Zerbitzuak.

- Lanpostuei dagokienez: Idazkari-Kontuhartzailea, Batzorde informatibo eta Departamentuetako idazkariak, Zerbitzuburuak eta Arduradunak.

Nolanahi ere, aipatu plangintza hezurmamitzeari ekitearekin batera, herritarrekiko harreman zuzenekoak duten Zerbitzu guztietan ahozko komunikazio elebiduna bermatzeko neurri egokiak hartuko dira.

Enplegatuek dagokien hizkuntza eskakizunera egokitzeko programaren aplikazioan, lantalde edo departamentu bereko enplegatuen artean euskalduntze eta alfabetatze prozesuan aurreratuen daudenak lehenetsiko dira, interesatuek espresuki alderantzizkoa adierazi ezean.

10. Artikulua.

Ordenantza honetan 6. artikulua arabera, euskara, Andoingo udalean, zerbitzurako hizkuntza ezezik laneko hizkuntza ere izango denez, dagokien hizkuntza eskakizuna jadanik betetzen duten enplegatuek euskaraz burutuko dute beren lana, eta gainontzekoek, elebiduntze plangintzaren barruan euskalduntzen doazen heinean, beren lana piskanaka-piskanaka euskaraz burutzeari ekingo diote, dagokien hizkuntza eskakizuna eskuratzean erabat euskaraz jardungo direlarik. Udalaren Euskara Zerbitzua izango da indarrean dagoen legeriak herritarrei aitortzen dizkien eskubideen bermetan gaztelaniaz ere eman behar dena gazteleratuko duena.

11. Artikulua.

Beren udal-jarduna euskaraz burutzeko gai diren eta hala burutzen duten enplegatuen esku jarriko ditu Udalak beharrezko diren lexiko, hiztegi, terminologi zerrenda, aldizkari eta liburu espezializatu eta gainerako dokumentu, inprimaki eta ereduak. Era berean, Euskara Zerbitzuaren aholkularitza ere baliatu ahal izango dira enplegatuek.

12. Artikulua.

Andoingo Udaleko lanpostuez funtzionari nahiz lan-erregimenpean jabetu ahal izateko derrigorrezkoa

Servicios (Asistencia Social, Oficina del Consumidor, Conserjes,...), Urbanismo, Policía Municipal, Servicios Internos.

- En lo referente a los puestos de trabajo: Secretario-Interventor, Secretarios de Comisiones Informativas y Departamentos, Jefes y Responsables de Servicio.

De todas formas, junto con el desarrollo de la citada planificación, se tomarán las medidas oportunas para garantizar la comunicación oral bilingüe en todos los servicios que mantengan relaciones directas con el ciudadano.

En la aplicación del programa para la adecuación de los empleados al perfil lingüístico que les corresponda, entre los empleados de un mismo grupo de trabajo o departamento se concederá preferencia a aquellos que se encuentren en situación aventajada en el proceso de euskaldunización y alfabetización, siempre y cuando los interesados no manifiesten expresamente lo contrario.

Artículo 10.

Con arreglo al artículo 6 de la presente Ordenanza, y como quiera que el euskera no sólo será lengua de servicio sino también lengua de trabajo, los empleados que ya se ajusten al perfil lingüístico que les corresponda desempeñarán sus funciones en euskera, y el resto comenzará a desarrollar paulatinamente su trabajo en euskera en la medida en que vaya euskaldunizándose, de forma que una vez se haya adecuado al perfil lingüístico que le corresponda realizará todo su trabajo en euskera. Será el Servicio de Euskera quien realice las traducciones necesarias al castellano, en garantía de los derechos que reconoce a los ciudadanos la legislación general en vigor.

Artículo 11.

El Ayuntamiento pondrá a disposición de los empleados que sean aptos para desempeñar sus funciones municipales en euskera, y así lo haga, léxicos, diccionarios, relaciones terminológicas, revistas y libros especializados y toda clase de documentos, impresos y modelos necesarios. De igual forma, los empleados podrán disponer del asesoramiento del Servicio de Euskera.

Artículo 12.

Para proceder a la provisión de un puesto de trabajo, bien sea en régimen laboral como en régimen de



Andoaino Udala

izango da lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzea. Beraz, probak gaituzten dituzten artean lanpostuaren hizkuntza eskakizuna ere betetzen duen lehen izangaia jabetuko da lanpostuaz. Probak gaituztutako artean lanpostuaren hizkuntza eskakizuna betetzen duten izangaririk ez balego bi aukeratariko bat egin beharko luke Udalak: plaza hutsik utzi, berriro deialdia egitekotan, edo probetan lehen postua atera duenari behin-behineko kontratua egin, kasu honetan Udalak kontratatuari arrazoizko epe bat jarriko liokeelarik bere hizkuntza eskakizuna eskura dezan, horretarako beharrezko dituen baliabideak eskainiz. Behin epe hori bukatu ondoren, behin-behineko kontrataturiko enplegatuek dagokion hizkuntza eskakizunaren jabe dela egiaztatu beharko du Udalaren aurrean. Frogatzen baldin badu behin-betiko izaera hartuko du bere kontratuak, baina frogatzen ez badu lan-kontratua hautsi egingo da, lanpostu hori barne-suztapenera atera edo deialdi publikora jarri ahal izango delarik. .

13. Artikulua.

Udaletxera sartzen diren nahiz Udaletxetik ateratzen diren dokumentuak idatzita dauden hizkuntza ofizialean inskribatuko dira Udal Erregistroan, Azaroaren 24ko 10/1982 oinarriko legeko 7. artikuluan xedatuaren arabera.

Bi hizkuntza ofizialean idatzita daudenak euskaraz inskribatuko dira.

14. Artikulua.

Udalaren bandoak, araudiak, ordenantzak eta ebazpenak oro bi hizkuntza ofizialean argitaratuko dira. Ordenantza honetako 22. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

15. Artikulua.

Euskara ere, gaztelania bezala, hizkuntza ofiziala denez, euskaraz idatzitako erabaki, jakinerazpen, xedapen, ziurtagiri eta gainerako agiri guztiek balio ofiziala dute.

16. Artikulua.

Indarrean dagoen araudiaren arabera mezua derrigor bi hizkuntza ofizialean eman behar den kasuetan euskarazkoa lehenetsiko da.

17. Artikulua.

Udaleko organo informatiboen eta Gobernu

funcionariado, será requisito indispensable acreditar el perfil lingüístico que corresponda al mismo. Por lo tanto, accederá a la plaza convocada el primero de los aspirantes que, habiendo superado las pruebas, se adecue asimismo al perfil lingüístico. Si entre los aspirantes que superen las pruebas no hubiera ninguno que cumpla el perfil lingüístico, el Ayuntamiento deberá optar por una de estas dos siguientes opciones: dejar la plaza vacante, para así volver a realizar la convocatoria, o contratar con carácter provisional al aspirante que haya quedado en primer lugar, estableciendo el Ayuntamiento en este segundo caso un plazo razonable para que el contratado se adecue al perfil que le corresponda y ofreciéndole los medios necesarios para ello. Una vez finalizado dicho plaza, el empleado contratado deberá acreditar ante el Ayuntamiento que cumple con el perfil lingüístico que le corresponde. Si así lo acredita, su contrato tomará carácter definitivo, pero de lo contrario, quedará rescindido, pudiendo disponer, en ese caso, dicha plaza a promoción interna, o realizar convocatoria pública.

Artículo 13.

Los documentos a los que se dé entrada o salida en el Ayuntamiento serán inscritos en el Registro Municipal en la lengua en la que se hallen escritos, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 7 de la Ley Básica 10/1982, de 24 de noviembre.

Los documentos que se hallen escritos en ambas lenguas oficiales se inscribirán en euskera.

Artículo 14.

Todo bando, reglamento, ordenanza y resolución del Ayuntamiento se publicará en las dos lenguas oficiales, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 22 de esta Ordenanza.

Artículo 15.

Siendo el euskera, al igual que el castellano, lengua oficial, todos los acuerdos, notificaciones, disposiciones, certificados y demás documentos escritos en euskera tienen valor oficial.

Artículo 16.

En los casos en que, con arreglo a la normativa en vigor, el mensaje haya de ser comunicado en las dos lenguas oficiales, se dará prioridad al de euskera.

Artículo 17.

Los textos originales de las actas de las reuniones de



Andoingo Udala

Batzordearen bilkuretako akten testu originalak bileretan erabili den hizkuntza ofizialean idatziko dira. Edozein kasutan, euskaraz idatzitako proposamen edo diktamenei buruzko erabakiak, bileretan gaztelaniaz eztabaidatuak izan badira ere, euskaraz jasoko dira aktetan. Guzti hau 10. artikuluan xedatuaren kalterik gabe.

Batzarraldi plenarioetako aktak euskaraz jasoko dira, nahiz eta bertan izandako interbentzioei buruzko erreferentziak egin izan diren hizkuntzan jaso.

18. Artikulua.

Udaleko organo guztiek dute –informatiboek nahiz exekutiboek- beren ohizko lan-hizkuntzat euskara aukeratzeko eskubidea. Erabaki hori hartzen duten organoen bilerak sistematikoki euskaraz egingo dira, eta euskaraz ez dakiten partaideentzat aldibereko itzulpen zerbitzua emango da. Era berean, organo horien aktak, gutunak, jakinerazpenak eta agiriak oro euskaraz idatziko dira, beharrezko den kasuetan gaztelarara itzultzearen kalterik gabe.

19. Artikulua.

Udaleko organo informatiboan eta exekutiboan bilkuretako deialdi guztiak bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, ohizko lan-hizkuntzat euskara aukeratzeko duten organoen bilera-deialdiak ezik, hauek euskara hutsean idatziko bait dira, gaztelaniazko itzulpena eskatzen duten partaideei bakarrik igorriko zaielarik.

20. Artikulua.

Komunikabideetan argitaratzen diren iragarkiak bi hizkuntza ofizialetan emango dira ezagutzera, euskarazko mezua lehenetsiko delarik. Era berean, komunikabideetara bidaltzen diren ohar eta informazioak ere euskaraz eta gaztelaniaz igorriko dira, eta informazio horien berri bi hizkuntzetan eman dezaten eskatuko zaie komunikabideei. Guzti hori, 22.5 artikuluan xedatuaren kalterik gabe.

21. Artikulua.

Udalak eta bere menpeko organismoek erabiltzen dituzten inprimaki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita inprimatuko dira, bi hizkuntza ofizialetarik

órganos informativos y Comisión de Gobierno del Ayuntamiento serán redactadas en la lengua oficial en que se haya celebrado la reunión correspondiente. En cualquier caso, los acuerdos referentes a propuestas o dictámenes redactados en euskera, aun habiendo sido deliberados en la reunión en castellano, serán recogidos en las actas en euskera. Todo ello sin perjuicio de lo establecido en el artículo 10.

Las actas de las sesiones plenarias serán redactadas en euskera, aunque las referencias sobre las intervenciones que se den en las mismas sean recogidas en la lengua en la que se realicen.

Artículo 18.

Todos los órganos del Ayuntamiento –tanto informativos como ejecutivos- tienen derecho a optar por el euskera como lengua de trabajo habitual. Las reuniones de los órganos que adopten ese acuerdo se realizarán sistemáticamente en euskera, y aquellos miembros que no entiendan euskera dispondrán del servicio de traducción simultánea. De igual manera, todas las actas, cartas, notificaciones y documentos de dichos órganos serán redactados en euskera, sin perjuicio de que en los casos en que sea necesario se realice la traducción al castellano.

Artículo 19.

Todas las convocatorias para las reuniones de órganos informativos y ejecutivos del Ayuntamiento serán redactadas en las dos lenguas oficiales, excepto las que correspondan a los órganos que hayan optado por el euskera como lengua de trabajo habitual, ya que éstas serán redactadas únicamente en euskera, siendo remitida la traducción de la misma sólo a los miembros que así lo soliciten.

Artículo 20.

Los anuncios que se publiquen en los medios de comunicación se darán a conocer en las dos lenguas oficiales, aun cuando se le dará prioridad al mensaje en euskera. De la misma forma, las notas e informaciones que se envíen a los medios de comunicación también serán remitidas en euskera y castellano, y se solicitará de los mismos que den a conocer dichas noticias en ambas lenguas. Todo ello, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 22.5.

Artículo 21.

Todos los impresos de los que haga uso el Ayuntamiento y los órganos dependientes del mismo se imprimirán redactados en euskera y castellano, de



Andoaingo Udala

bat edozeinetan betetzeko moduan. Euskaraz bakarrik idatzitako inprimakiak ere jarriko ditu Udalak euskara hutsean bete daitezzen nahi duten hiritarren esku.

Halaber, Udalaren eta bere menpeko organismoen zigilu guztiak, nahiz barne-funtzionamendukoak nahiz proiektio publikoa duten agirietan estanpatzekoak, bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, 22. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

22. Artikulua.

Ondoren aipatzen diren kasuetan euskara bakarrik erabiliko da:

1. Ordenantza honetako 5. artikuluan aipatu zentsuan inskribatutakoei bidaltzen zaizkien gutun, agiri eta jakinerazpenetan, eta zentsu horretan daudenen eskariz irekitzen diren espedienteetan.
2. Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legea, euskararen erabilera normalizatzekoa, betetzea dagokien Administrazio Publikoei igortzen zaizkien idatzietan.
3. Euskara hizkuntza ofiziala duten Organismoei bidaltzen zaizkien idatzietan.
4. Errotulu, seinale eta antzekotan euskaraz eta gaztelaniaz oso antzeko grafia duten hitzak idazterakoan.
5. Mezua piktogramaz baliatuz adierazi litekeenean.
6. Ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak eta destinatarien berezitasunek eskatzen dutenean.

23. Artikulua.

Andoaingo Udalak sinatzen dituen kontratuak euskaraz idatziak izango dira, kontratuan eskuhartzen duten beste alderdiak hala eskatuko balu, euskaraz eta gaztelaniaz idatziak izango liratekeelarik.

24. Artikulua.

Idazmakinak, ordenagailuak, berauen inprimagailu eta programak, eta Andoaingo Udaletxean erabiltzeko eskuratutako materialeak euskaraz funtzionatzeko egokituak izan dadin saiaturiko da Udala.

forma que puedan ser cumplimentados en cualquiera de las dos lenguas. El Ayuntamiento dispondrá también de impresos redactados únicamente en euskera, con el fin de atender la demanda de los ciudadanos que así lo requieran.

De igual forma, todos los sellos del Ayuntamiento y de sus órganos dependientes, tanto los que hayan de ser estampados en documentos de orden interno como en los que tengan proyección pública, serán escritos en las dos lenguas oficiales, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 22 de la presente Ordenanza.

Artículo 22.

Se utilizará únicamente el euskera en los casos que, a continuación, se relacionan:

1. En las cartas, documentos y notificaciones que se envíen a los inscritos en el censo mencionado en el artículo 5 de la presente Ordenanza, y en los expedientes a los que se dé apertura a petición de los inscritos en el mismo.
2. En los escritos que se remitan a las Administraciones Públicas a las que corresponda cumplir la Ley Básica 10/1982, de 24 de noviembre, de normalización del uso del euskera.
3. En los escritos enviados a Organismos que tengan como lengua oficial el euskera.
4. Al escribir, en rótulos, señales y similares, términos cuya grafía sea muy semejante en euskera y en castellano.
5. Cuando el mensaje pueda ser transmitido mediante pictogramas.
6. Cuando así lo requieran el carácter de la actividad a comunicar y las particularidades del destinatario.

Artículo 23.

